

242. zk.

Bigarren aroa

Abenduak 1
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Euskararen eguna:

Euskararen Eguna dela eta antolatu diren ekintzak

euskararen
egunak

Kirolak

Ander Monserrat,
goma paletako jokalaria irundarra



Mikel Estomba kooperante lanetan ibili da Bolivian

- 3 Erreportajea Bakailaoaren inguruko jardunaldiak
- 6 Olentzeroren jatorria
- 7 Inkesta Euskara erabiltzen da Irunen?
- 8 Kirolak Gabonetako Krosa antolatu du Super Amara BATek
- 9 Olentzeroren opariak
- 11 Haurren Leihoa Toki Alai LH 3. zikloa
- 12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola BHI
- 14 Gazte infor

**Jaso ezazu
IRUNERO etxean !!**

jarozena@irunero.com 693 828099

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Bon lieu



Xabier Kerexeta

IRUN: "Son nom, qui signifie bon lieu en langue basque, lui a été donné par ironie sans doute, car les voyageurs sont trop souvent rançonnés". Tira: ez da hainbesteko; gehienez ere, mugara mugatu da ironia: "Le faubourg d'Irun qui se trouve situé du côté de la frontière française se distingue par sa saleté, mais l'intérieur de la ville est assez propre".

Zer ez duten esan gutaz batera edo bestera guretik pasa direnek! Esan ere, esan zuen batek Irungo emakumeak arrunt ederrak direla, baina gizonak, arrunt itsusiak... zirela?, garela? Hamaika irakurtzeko jaiok gara! Dena den, gaur gure herriaren etimologiak ekarri nahi nituzke hizpide, etimologiaren faltan ez baikara, ironiaz ala ez.

Lehenik eta behin, adostu beharko genuke zein den gure herriaren izena: Oiasso modan dugu orain;

baina hori testu klasikoetan agertzen ziren aldaeretako bat baizik ez da. Frantses ironiko berak diosku, erromatarren garaiko aiurri batzuen aurkikuntzaz ziharduela: "La ville d'Irun paraît avoir été l'Hanusa des Romains". Idanusa, Ossaron, Eidason... eta ospetsuena baina orain donostiar ederrek besterendu digutena, Easo. Badirudi jatorrizko izen berari itzuliguru zebilizkiola, beharbada atzizkidun euskal toponimo bat entzun eta deklinatzen diren latin eta grezieraz idaztearen ondorioz. Kontuan hartu behar da bertatik bertara eta hitzetik hortzera ez baina auskalo zenbat mihi-belarritan iragan ondoren idazten zutela.

Erdi Aroan, berriz, oiartzuarrez landa, Yrun azaltzen zaigu... baina ia beti ez-kondukta: Urançu, Irançu, Arança eta beste aldaera batzuk ere agertzen ziren. Bi izen herri bakarrarentzat, ala bi hirigune parroquia bakarrean? Bego horretan oraingoz.

Gero etorri zen Irun, eta geroago Irún, eta orain berriro, poliki-poliki, Irun. Uranzu ez zen desagertu, Irun toponimo handiaren baitako toponimo txikiagoa izatera mugatu baizik. Hori bai: orain bi Uranzu ditugu Irunen, ofizialki "Pelegrin de" bataiatu kalearen deitura baizik ez baita erabiltzen.

Tira, kontua zen: Irun hitzak berak zer esan nahi du? Beste batean beharko.

Irun atzo Irun gaur

Aduana kalea atzo eta gaur



1880an orain kale den honetan Aduanaren eraikin handia altxatu zen. 1887an Irungo Udalaren Osoko Bilkurak egun Kolon ibilbidea dena eta Elizatxo hiribidea lotzeko irekitako kaleari, bada, Aduana deitzea erabaki zuen, Nicolas Gerendiainek proposatuta.

1932an Pablo Iglesias izena jartzea onartu zen Udal Batzarrean. UGT Langileen Elkarrean Irungo Federazioak proposatu zuen, PSOEren sortzailearen omenez. Gainera, Florencio Iraxeta zinegotzi sozialistak eskatuta onartu zen; alegia, Aduanaren eraikinetik Elizatxora bitarteko tarteari ere hala deitzea. Kaleari izena emango zion oroigarritzko plaka erakutsiko zela eta, hainbat ekitaldi publiko antolatu ziren; horien artean, Fantasio aretoan egin zen mitina nabarmentzeko izan zen, bertan Xanti Meabe, Federico Angulo eta Pablo Cortes hizlari izan ziren eta.

Gutxi iraun zuen, ordea, izen horrek: 1937an, Francoren tropek Irun hartu eta hilabete ba-

tzuetara, Mártires de Guadalupe izenez bataiatua izan zen, Gobernazio Batzordearen ekimenez.

Guadalupeko gotorlekuan preso zeuden eta Gerra Zibilean fusilatutako izan zirenen omenez aldatu zitzaion izena. 1936ko irailaren 4an Mola Jeneralaren tropek Irun hartu zuteneko jendearen oroimenean oraindik bizi-bizi zegoen. Hartara, garaileek beren martiriren izena kale bati jarri nahi izan zioten.

Azkenik, 1979an, Frankoren diktadura garaia amaitu ondoren, aukeratutako lehenengo Udal demokratikoak kaleari bere aurreneko izena berriz jartzea erabaki zuen. HBk proposamen bat egin zuen, aurrera atera ez zena: Josu Zabala deitzea, kale hartako hartako bizi-laguna baitzen 1976ko irailaren 8an Hondarribiko jaietan Goardia Zibilak tiroz hil zuen gaztea.

Iturria: José Monje. Irungo kaleen izenak

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sonsebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 693 82 80 99



Maisuengandik ikasten



Bakailaoa sukaldatzeko tailerrak antolatu ditu "Bakailaoa dasta ezazu" elkarteak

Jendea iristerako, sukaldariak La Salle elkarteko suen artean ari ziren, bakailaoari lehen ukituak ematen. Ikasle izango zirenak inguruan kokatu ziren, begi-bela-riak erne, eta koadernotxoak prest. Zura jatetxeko Alberto Liebanak zuzendu zuen tailerra, baina beste hiru gonbidatu ere izan zituen ondoan: Hondarribiko Arraunlari jatetxeko Iñaki Barros eta Bacalao La Barajillako Luis Tojal eta Josema Gonzalez. Plater nagusia maionesarekin lagundutako bakailao gainerrea izan zen. Alberto Liebanak hainbat jarraibide eman zituen. Halere, sukaldariaren nortasuna aldarrikatu zuen: "Bakoitzak bere estiloa dauka. Errezetak interpretatu egin behar dira".

Ikasleak galdezka hasi ziren laster, lotsak alde batera utzita. Aholkuak eta trikimailuak eman zituzten, baina bereziki azpimarratu zuten lehengaiaren kalitatearen garrantzia. "Bakailaoa auto bat bezalakoa da. Diferentzia ordaindu egiten da. Genero ona erosteak merezi izaten du, ordea", azaldu zuen Iñaki Barrosek. Arraunlari jatetxeko sukaldariak bakailaozko tripakiak prestatu zituen. La Barajillako ki-deek, bakailaoaren buruko

mamia sukaldatu zuten, pil-pil erara. Ezohiko platerak dira biak ala biak, baina merkeak eta erabilgarriak. Hala uste du La Barajillako Luis Tojalek: "Tripakiak eta buruak bota egiten dira askotan. Baina Portugalen eta Katalunian badute jateko ohitura". Non eros daitezkeen galdetu zuten ikasleek. Bakailao-dendetara joateko gomendatu zieten sukaldariak.

Elkarreragina handituz joan zen pixkanaka. Perrexila, labaina edo ardoa zirela, ikasleak sukaldari laguntzen hasi ziren. Pil-pilaren musika entzutearekin batera, gosea zabaldu zen laster La Sallen bildutakoen artean. Bakailaoa dastatzeko aukera ere izan zen, Rueda Jatorri Izendapeneko ardo zuriarekin lagunduta. Tailerrak emandakoarekin pozik zegoela azaldu zuen Sonia García Bakailaoa dasta ezazu ekimeneko koordinatzaileak: "Hogei lagun inguru elkartu gara. Sukaldean biltzeko aukera izan dugu, eta tailerra oso dinamikoa izan da". Eskualdeko bakailao-enpresen elkarte da Bakailaoa, dasta ezazu. Produktuaren kontsumoa sustatzea du elkarteak helburu. Testuinguru horretan antolatu dituzte elkarte gastronomikoetako tailerrak.



Goian, Alberto Liebana sukaldaria, parte-hartzaile zenbaitekin La Salle elkartean. Ezkerrean, parte-hartzaileak sukaldariekin, eta prestatutako bi errezeta.



**BALIA EZAZU 700 € ARTEKO
LAGUNTZA OFIZIALA**

**Aldatu zure bainera
dutxa batengatik**

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

**ESKATU AURREKONTUA IRUNERO PROMOZIOA
AIPATUZ ETA OPARI BAT JASOKO DUZU**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Urantz, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

 BAINU

Mintzapraktika eta artea hartu ditu Udalak ardatz

Irunen bi egitarau izango dira aurten: Udalarena, eta hainbat herri-mugimenduk eta elkartek prestatutakoa. Udalak abenduaren 2rako eta 3rako antolatu dituen ekimenak “Euskara, plazara” goiburua biltzen ditu. Txanaleta plaza izango da jarduera gehien eremua, eta Sareuskak antolatutako Mintzodromoa, ekimen nagusia.

Gainera, Txanaletan bertan dagoen Kunsthal eskolak parte hartze handia izango du. “Gure diseinuarekin proiektu guztia kutsatu dugu”, azaldu du Gaizka Zuazo irakasleak.

Euskararen Egunaren bezperan, bi film emango dituzte Amaia KZn. 17:30ean “Dixie eta matxinada zontzia” haurrentzako pelikula izango da ikusgai. 20:00etan, berriz, “Loreak” filma eskainiko dute. Ondoren, solasaldirako tarte izango da, Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño pelikularen zuzendariekin. Filmak ikusteko gonbidapenak Foru kaleko Gazte Informazio Bulegoan banatuko dituzte. Doan izango dira, baina pertsona bakoitzak launa sarrera jaso ahal izango ditu gehienez.

Abenduaren 3an, Txanaleta plazan egongo den karpa izango da

erreferentzia gune. Egun osoa hartuko du Post-it Art ekimenak. Postitetan euskara “plazara” ateratzeko ideiak eman ahal izango ditu edonork, denen artean mural bat osatzeko. 10:00etan, Txanaletan bertan, Sareuskak antolatutako Mintzodromoan parte hartzeko aukera egongo da. Hego Lapurdiko Hiriguneak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoak sortu dute Sareuska, eta Irungo Mintzodromoa izango da elkarlanean egingo duten lehen ekimena. “Euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera ezin hobea izango da, lagunekin kafetxo bat hartzen den bitartean”, aipatu du Fernando San Martin euskara zinegotziak.

Arratsaldean, haurrak izango dira

protagonista. Txanaleta jolas parke bilakatuko da, eta Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia eskainiko dute bertan, 18:00etatik aurrera. Ordu erdi lehenago, Maider Galarza ipuin kontalaria ariko da Udal liburutegian. 19:15 aldera, “Euskara kantari” emanaldiarekin bukatuko da Eguna, Txanaleta plazan.

Bi ekintza paralelo Artalekun Abenduaren 1etik 5erako astean, beste bi jarduera izango dira Artaleku kiroldegiko kafetegian. Aslehenetik ostiralera “Elkarrizketariak” mintzapraktika saioak eskainiko ditu Steps Junior kooperatibak. Euskaltegiko 6. mailatik beherako ikasleei eta euskara maila baxua duten hiritarrei zuzenduta dago. Dinamika nolakoa izango den azaldu du kooperatibako Ainara Guzmanek:

“Modu sinplean eta jolasaren bitartez planteatuko ditugu saioak”. Aldez aurretik izena ematea ez da beharrezkoa izango. Edonor hurbildu ahal izango da arratsalde osoan zehar.

Artalekun bertan, “Ametsen arbola” prestatuko dute Kunsthal eskolakoek. Zurez, metalez eta hariz osatutako egitura izango da, eta hiritarrek euskarazko mezuak idatzi eta zintzilikatzeko aukera izango dute, hostoak balira bezala. Eskultura bereziak apainduko du, beraz, kiroldegiko kafetegia. “Espazioaren itxura aldatu egingo da. Prozesu hori oso interesgarria dela iruditzen zaigu”, aipatu du Gaizka Zuazo Kunsthalen irakasleak. Arte eta hizkuntza ezkondu nahi izan ditu, beraz, Irungo Udalak, Euskararen Egunari begira.



Zergatik abenduaren 3an?

1949an, Eusko Ikaskuntza ikerketarako abenduaren 3a izendatu zuen Euskararen Nazioarteko eguna. San Frantzisko Xabierkoaren heriotzaren data aukeratu zuen horretarako. 1995ean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ospakizuna instituzionalizatu egin zuten. Aurrerantzean, ekimen anitzak antolatzen dira abenduaren 3an Euskal Herri osoan zehar.

CARLIN
OFIMARKET

BULEGO MATERIALA

Andrearriaga, 10 BENTAK - IRUN 943 635594
carlin@carlinirun.com



Gasolindegia

VRANZY, S.A.

Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN

Tels.: 943 62 51 83

Fax: 943 63 04 98

Javier Aguirre Laso
Gerente

javier@avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com

Euskararen Nazioarteko Eguna

Indarrak batu dituzte elkarteek, euskarari bultzada emateko

Urtetan egin izan dituzte Irungo elkarteek Euskararen Egunaren inguruko ekitaldi xumeak. 2012an indarrak batu eta abenduaren 3rako egitarau komuna antolatzea erabaki zuten horietako batzuek. Bi urte geroago, hemezortzi eragile aritu dira aurten Euskararen Egunak antolatzen. Bi asteko egitaraua antolatu dute, hiriko euskaldunak, euskara ikasleak eta euskaltzaleak elkartzeko asmoz.

Antxeta Irratiaren hamargarren urteurrenaren ospakizunetan aurki daiteke Irungo Euskararen Egunen sorrera. Zuhaitz Olazabal irratiaren zebilen orduan: "Bertso afari bat antolatu genuen 2011ko euskararen egunean, EKT Euskal Kultur Taldearekin elkarlanean. Orduan bururatu zitzaigun urtero egin genezakeela zerbait, eragile ezberdinak batuta". Hurrengo urteari begira, beste hainbat elkarterekin jarri ziren harremanetan. Arrazoia, edo helburua, azaldu du Olazabalek: "Euskarak urtean zehar behar ditu data edo ospakizun jakin batzuk, pixkanaka guneak irabazten joateko". 2012an asteburu bateko ospakizuna antolatu zuten, hamar elkarteren artean.

Hurrengo bi urteetan, eragile gehiago bildu nahi izan dituzte. "Atea irekita dago edozein elkarte edo koadrilarentzat. Eskatzen dugun bakarra euskararenganako nolabaiteko atxikimendua da", azpimarratu du Zuhaitz Olazabalek. Aurten hemezortzi izan dira antolatzaileak. Tartean, euskalgintzan ari diren Antxeta Irratia, AEK, Irunabar; baita eremu horretatik kanpoko Irungo Atsegina, IAE Irungo Argazkilaritza Elkarte eta Santiagoko Deabruak ere. Olazabalek nabarmendu du

eragile bakoitza libre dela nahi duen jarduera antolatzeko: "Batzuek beren esparruko ekintzak egin izan dituzte. Baina AEK-k adibidez, aerobika proposatu du lehen bi urteetan".

Koordinazio talde batek zuzentzen du Euskararen Egunen prestaketa. Urtean zehar tarteka biltzen da taldea. Abenduaren 3aren aurreko bi hilabeteetan, asteroko maiztasuna izaten dute bilerek. Gero eta denbora gutxiago behar dutela baieztatu du Olazabalek: "Gaur egun badakigu zein pieza dauzkagun, eta non sar ditzakegun". Aurtengo egitarauan abenduaren 3aren aurreko asteburua izan da indartsuena. Hiri-martxa, marrazki lehiaketa, kantu bazkaria, argazki rallya eta dantza eta trikitixa saioak antolatu zituzten. Abenduaren 3an mahai ingurua izango da Antxeta Irratian, Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako euskara zinegotzien parte-hartzearekin. Hurrengo egunerako, bertso saioa prestatu du Irunabarrek Kabigorri ateneoan.

Zailtasunak eta trabak

Hemezortzi elkarte bildu dituzten arren, Zuhaitz Olazabalek onartu du jende gehiagorengana iritsi nahi dutela: "Euskaraz ez dakien baina euskaltzale den publikoa ere



erakarri nahi genuke". Hizkuntzarekiko jarrerari baino gehiago, hiriaren antolamenduari erreparatu dio Olazabalek, jendearengana iristeko zailtasuna azaltzeko orduan: "Irunen oso markatuta daude guneak. Mosku, Kale Nagusia, Zalbaitza Plaza... Egia da guk ekintza gehienak Moskun antolatzen ditugula. Ondorioz, hortik kanpo zaila da jendeak jakitea Euskararen Egunak antolatzen ditugula". Euskaldun diren askok ere, egitarauaren berri izan arren, ez dute parte hartzen: "Ez dute bere sentitzen".

Duela bi urte, elkarteek lehen aldiz Euskararen Egunak antolatu zituztenean, Irungo Udalak parte hartu zuen. Esperientzia ez zen emankorra izan: "Gure eztabaidak eta ika-mikak izan genituen, Udalak ez zuen lako eragile bat gehiago izan nahi", azaldu

Elkarteek aurten prestatu dituzten ekintzak iragartzeko kartela.

du Zuhaitzek. Hortik aurrera, bideak banandu dituzte. Aurten elkarteek eskatu duten bakarra azpiegiturak izan dira. "Santiagoko frontoian karpa bat jartzeko baimena jaso dugu, baina Euskararen Eguna baino hiru aste lehenago". Ez dute denborarik izan jarduera guztiak karparen inguruan antolatzeko, baina hurrengo urteari begira begi onez ikusten dute aukera. Euskarari "arnasa" ematen jarraitzeko asmoa dute elkarteek.

NATUR HOUSE

Eliza kalea, 2 (San Juan). IRUN - 943 62 72 54

copias colón

soluzio grafikoak

Luis Mariano 12
20302 IRUN

T 943625318
F 943639960

Olentzero, jentilak eta neguko solstizioa

Oso garai zaharretatik euskaldunok sua gurtu dugu eta sua erabili izan dugu solstizio eta ekinozioen inguruko jai erritualetan. Jondoni Joane edo San Joanen udako solstizioan sua da jaun eta jabe, garbitzaile eta berritzaile ber denboran. Inotean (edo inauterian) ere, sua indar handiz dagerkigu. Berak finkatzen du udaberriko ekinozioaren amaiera eta, halaber, ziklo berri baten abiapuntu bilakatzen zaigu.

Neguko solstizioan ere sua protagonista dugu, eta gure arbasoek abenduaren 24ko gauean enbor handi berezi bat erretzen zuten etxeko tximninan. Subilaro, Olentzero edo Eguberri enborra deitu izan zaio eta orain dela oso gutxi arte oso zabaldua izan den usaia edo ohitura dugu. Oraindik ere, zenbait etxetan egin egiten dute. Errito hau eguzkiaren jaiotza ospatzeko egiten zuten, edo beste modu batez esanda, eguzki jaioberriaren ohorez.

Neguko solstizioa jentilen garaietan.-

Aro zahar ilunetan euskal jentilek jai erritual handiak burutzen zituzten eguzkia gurtzeko. Nekazaritza edo laborantzatik bizi zirenez gero, urtearen zikloa, lau urtaroak, egunaren eta gauaren txandatzeari, ilargiaren aldiak, naturaren gurgila... aztertzen zituzten, eta eguzkiaren beharraz konturaturik, urtaroen arteko banatzaile diren solstizio eta ekinozioetan jai handiak antolatzen zituzten.

Urtearen bukaera aldera eguzki zaharra, Ekihotz deitu izan dena, pittakapittaka indargabetzen da, eta azkenean, hiltzen da. Neguko solstizioaren inguruko egunetan eguzki berria jaiotzen da, udaberri aldean berotzen hasiko dena eta uzta berriak ekarriko dituena. Hauxe zen gure arbasoek ospatzen zutena, eguzki berri baten jaiotza, ziklo berri baten hastapena. Eta horretarako su berritzaile eta garbitzailea pizten zuten etxe guzti-guztietan.

Garai hartako euskal jainko-jainkosak biziki loturik ziren naturarekin, eta euskal jentilek dibinitate haiek (In -edo Inko-, Egu, Eki. Ilargi...) aipatu festetan gurtzen zituzten. Badirudi Eguberri hitza bera zahar-zaharra dela, Egu dibinitatearen kultuarekin erlazionaturik dena. Eguberri hitzaren esanahia ulertzeko ziklo berria aldarrikatzen duen sinesmenetara joa beharko ge-



nuke. Kristauek data horietan, nahitaz, Natibitate eguna ezarri zutenean bi kosmogonien arteko sinkretismoa bilatzen zuten, hori dela eta, Eguberri izen zaharra baliatu zuten euren sinbologia berrirako.

Kristauen etorrera eta ezarketa.-

Ekialdetik erlijio sendo indartsua etorri zen eta pittaka-pittaka Europa osoan hedatu eta inposatu zen, baita gure Euskal Herrian ere. Erlijio berri honek kosmogonia berria ekarri zuen, animismo-naturalismotik urrun zena. Jesus salbatzailea zen kosmogonia berri honen ardatza, euskal jentilek Kixmi (tximino edo tximu omen) deitu izan zutena.

Erlijio berriak errito zahar anitz bere baitan eraldatu eta onartu bazituen ere, beste anitz galarazi eta bazterrarazi zituen. Euskal jentil askorentzat erlijio berria sinesmen zaharren jarraipena izan zela, beraiek horrela sentitu zuten, bederen. Adibidez, Mari gure jainkosa handia Maria bilakatu zen.

Kristauek jakin zuten euren sinesmenak aurreko sinesmen jentilekin nahasten, eta euren errito eta jaiak naturaren inguruko errito eta jai zaharrek parekatzen. Horrela, solstizio eta

zaharretan Eki edo Eguzki baldin bazen ardatza, zeruan jaio, hazi, hil eta arrapizten zelarik, kristauen zikloan gauza bera izanen da, baina Jesus izanen da jaio, hazi, hil eta arrapiztuko dena.

Olentzeroren mito zaharra.

Ziklo animista-naturalista zaharren eta ziklo kristauaren artean kokatu behar dugu Olentzero izeneko pertsonaia. Batzuen ustez, ziklo zaharra irudikatzen du, hau da, ekihotzaren heriotza eta eki edo eguzki berriaren jaiotza. Kristauen ustez, berriz, Olentzero azken jentila da, sinesmen zaharren amaiera eta Jesukristoren sinesmen berriak iragartzera datorrena. Hortaz, hauxe dugu, garai haietan gertatu zen sinkretismoaren adibiderik onena. Ziklo bat bestearen gainean, kosmogonia bat bestea estaliz.

Joxemiel Barandiaran Ataungo antropologo zaharrak Olentzeroren mitoa ahozko oroitzapenetatik jaso eta bizirik iraunarazi du gure egunetaraino. Horra hor: Badirudi euskal jentilek ez zutela begi onez ikusten kristautasunaren etorrera eta zabalkundea, euren herriaren eta sinesmenen amaiera ekar zezakeelakoan. Hori dela eta, anitzetan, gure haran eta ibarretan gero eta ugariagoak ziren baselizak erasotzen zituzten mendietatik harritzarrek jautzit.

Behin, jentilak Aralarreko Argaintxabalera izeneko lepoan bilduta zeudela, beraiengana hurbiltzen zen izar edo hodei distiratsu bat ikusi omen zuten. Jentil zaharrenak, hura ikusiz, honela esan omen zuten: "Kixmi jaio da. Gure arrazaren amaiera iritsi da. Bota nazazue amildegi horretara, jadanik, ez baitut zer egiterik mundu honetan". Gogoaren kontra bazen ere, jentil zaharra zulo handi batera amildu zuten. Gero izaturik, lasterka egiteari ekin zioten. Horietako batzuk erori egin ziren mendi magaletik behera zihozazela, lubizi bat sortuz. Euren gorpuak Arrastarango Jentilarri trikuharriaren azpian omen daude ehortzirik.

Jentil horietako bat, Olentzero izena zuena, ez omen zen lubizi hartan hil, eta berak zabaldu omen zuen Kixmiren jaiotzaren berria Euskal Herri osoan zehar, herriz herri eta etxez etxe. Istoria horretan dugu Olentzeroren mitoaren adierazpena.

Joseba Aurkenerena



Olentzero izeneko jentil batek zabaldu omen zuen Kixmiren (Jesusen) jaiotzaren berria

ekinozioen inguruetan euren jai nagusiak ezarri zituzten: Jesusen Natibitate (edo Eguberria, jentilen izen zaharra beraientzat hartuz) neguko solstizio irian, Garizuma eta Aste Saindua (inotearen ondoren) eta Jondoni Joane edo San Joan udako solstizioaren irian.

Eguberri kristauetan ez da eguzki jaio berria gurtuko, Jesus jaioberria baizik, eta aitzineko sinesmen

Mari Ángeles Amador



Gazte gehienak euskaldunak badira ere, irundarrek ez dute asko erabiltzen. Etxean erdaraz hitz egiten dugula uste dut, eta ohitura hortik datorkiela. Aukera asko dauzkagu euskara ikasteko eta hobetzeko. Euskararen Astean zenbait jarduera antolatzen dituzte eta nire alabak parte hartu izan du.

Ignacio Hernández



Irunen euskara gutxi erabiltzen da; nire ustez, gauza gehiago euskaraz egin beharko lituzkete, jendeak gutxinaka-gutxinaka ikasteko. Bestalde, ene iritziz, ikasi nahi duenak aukera asko ditu; adibidez, nire alaba 40 urterekin ikasten hasi da eta erraztasun asko eman diote. Nahi duenak ikasteko aukera dauka.

Amaia Ramos eta Gema Telletxea



Gero eta gehiago erabiltzen dela uste dugu. Gaur egun denda gehienetan euskaraz badakite, batez ere jende gazteak lan egiten duentan. Jendeari euskara ikastea gustatuko litzaiokeela iruditzen zaigu, baina denbora asko behar da barne-tegi batera joateko. Dena den, nabaritzen da euskara gero eta gehiago entzuten dela.

Manuel Muñoz



Beste herri batzuetan euskaraz askoz gehigo hitz egiten dute. Hemen, Irunen, ez dugu asko erabiltzen; gazteek pixka bat gehiago, baina helduok gaztelaniaz egiten dugu. Ohiturarengatik izango dela pentsatzen dut; halere, egia esan, aukera asko eskaintzen digute ikasteko.

INKESTA

Euskara erabiltzen da Irunen?



Mari Ángeles Lasarte

Nire ustez, gutxi samar erabiltzen da. Ez dakit zergatik gertatzen den. Agian gazteek gero eta gehiago erabiltzen dute, baina helduon artean gutxi batzuk besterik ez dugu hitz egiten. Gaur egun ikasteko aukera asko daude eta ikasi nahi duenak ikasten du, eta nahi ez duenak ez du ikasten.



La agrícola

J A T E T X E A

☞ Zuzendaritza eta lantalde berria

☞ Bezero mota guztientzat

EGUNEKO MENUA

4 lehenengo plater
4 bigarren plater
Postrea edo kafea
Edaria barne

10 €

ASTEBURUKO MENUA

17 €

☞ Barrako pintxoak 1,10 €
☞ Pintxo bero anitz
☞ Errazioak
☞ Plater konbinatuak
☞ Ogitartekoak eta hanburgesak 4 €tik



Alzukaiatz, 1 IRUN - 943 01 96 19

Herri atletismoaren inguruko festa antolatu du Super Amara BATEk

San Silvestre eguna dela eta, lasterketak antolatzen dituzte abenduaren 3In herri askotan. Urtea ariketa fisikoa eginez bukatzeko, aukera aproposa. Bidasoan, esate baterako, bost urte dira Sport Mundi fundazioak Hondarribiko San Silvestre proba sortu zuela. Ideia antzekoarekin, eta harekin senidetuta, Gabonetako Krosa antolatu du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Abenduaren 20an egingo dute, Santo Tomas bezperan.

5 km-ko proba laburra izango da Gabonetako Krosa. Luis Marianon egongo dira irteera eta helmuga, eta ibilbideak hiriaren erdigunea, San Migel eta Dunboa auzoak zeharkatuko ditu. "Lasterketa motza eta eramangarria da. Ez dago helmugarik, ez eta denbora mugarik ere. Edonork egin dezake", azaldu du Ibon Muñoz BATEko kirol zuzendariak. Helduen lasterketa arratsaldeko 16:45ean abiatuko da. Proba nagusia irten baino ordu bete lehenago, haurrek ere korrika egiteko aukera izango dute. Hamahiru urte artekoentzako lasterketak egingo dituzte. Gurasoek lagunduta parte hartu ahal izango dute txikienek, nahi izanez gero.

Lasterketen inguruan, beste hainbat jarduera prestatu ditu Super Amara BATEk. Atletismo proba hutsa baino gehiago, "festa" antolatu nahi izan dutela onartu du Muñozek. Luis Marianoko tabernen babesari esker, pintxo-potea izango da arratsalde osoan. Gainera, DJ-a

egongo da Luis Marianon, kalea girotzeko asmoz. Irungo Argazkilaritza Elkartearekin ere akordioa lortu du BATEk. Ondorioz, lasterketaren inguruko argazki lehiaketa antolatu dute elkarlanean. Festa borobiltzeko, Peugeot 208 Like auto bat zozkatuko du antolakuntzak, Luis Marianon bertan. "Korrika egin nahi ez duenak ere hurbiltzeko nahikoa arrazoi izango du", azpimarratu du Muñozek.

Elkartasun keinua

Hondarribiko San Silvestre lasterketarekin lehian aritu beharrean, lotura estua sortu nahi izan du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Hori dela eta, izena ematen duen korrikalari bakoitzeko, euro bana emango dio BATEk Sport Mundi fundazioari. San Silvestrea antolatzen duen Gobernu Kanpoko Erakundeak helburu solidarioak dituen elkarte bat diruz laguntzen du urtero, lasterketak sortutako etekinen bidez. Aurten Behar Bidasoa elkarteari emango diote babesa Hondarribiko San Silves-



treak eta Irungo Gabonetako Krosak. Lasterketen arteko lotura finkatzeko, bietan parte hartzen duten korrikalarien artean sari bereziak zozkatuko dituzte.

Bi aitabitxi izango ditu lasterketa berriak. 2. zenbakia daraman dortsalarekin izango da irteeralerroan Ander Elozegi. Proposamen erakargarria iruditu zaio piraguista olinpikoari: "Nik uste korrikalarien artean harrena ona izango duela, lasterketaz gain Irunen giro polita sortuko duelako".

1. zenbakiarekin, Iñigo Lavado sukaldaria irtengo da. Super Amara BATEko entrenamendu talde batekin korrika dabil azken aldian. "Aurkikuntza handia izan da kluba niretzat. Giro polita daukate, eta ekimen berriak dituzte beti esku artean", azaldu du sukaldariak. Momentu atsegina bizi du Bidasoa Atletiko Taldeak, Joseba Sarriegi kide beteranoak azaldu duen bezala: "Kluba martxan jarri genuenean, gure ametsik onenetan ere ez



Lasterketaren aurkezpenean parte hartu zutenak, Ficoban.

genuen pentsatu atletismoak horrelako egoera goxoa bizi izango zuela Bidasoa bailaran". Lasterketa, kopuruaren aldetik behintzat, goraka ari da etengabe.

IZEN EMATEAK:

- atletismobat.com
- kirolprobak.com
- Leire Sport (Irun).
- Papelería Papycop (Hondarribia).

KOADRILEN ARTEKOAN

PARTE HARTZEKO:

info@gabonetako-krosa@gmail.com

DORTSALAK ETA TXIPAK

JASOTZEKO:

- Abenduaren 18an eta 19an (arratsalde): Irungo Super Amaran.
- Abenduaren 20an (goizez): Irungo Super Amaran.
- Abenduaren 20an (arratsalde): irteera gunean (Luis Marianon).

ALDAGELAK ETA DUTXAK:

Artaleku kiroldegian.





Ketty's Academy

EGONALDIAK EEUUetako familirekin



- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
kettysacademy@gmail.com

OLENTZEROREN OPARIAK



LARANJA ZUKU BAT DOHAINIK
Iragarki hau aurkeztearen truke

 naranjascosta.com
96 242 25 37 - 663 851 250

Almirante Arizmendi
kalea. IRUN

Zurione
PROFESSIONALSHOP

Etxeke tresna elektrikoak, jostailuak, tinta kartutxoak, informatika...

100 € baino gehiagoko erosketatik batengatik
MINION BAT OPARITAN

Antoine D'Albadie, 3 IRUN
943 116786

Estimatzaren epea: parginala bukatzen diren arte eta 2014-11-31.

DANZA TATIANA

LUZAKETA KLASE BAT DOHAINIK
Iragarki hau aurkezten dutenentzat (Hitzordua eskatu beha da)

Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatiana@euskalnet.net

pagalday
optikoa

%10eko BEHERAPENA
Txartel hau aurkeztu behar da. Epea: 2015 - 1 - 6
Iparralde hiribidea, 2 - IRUN - 943 630664

Argitze % 10eko BEHERAPENA lehenengo hilabetean

ESTIMULAZIO KOGNITIBOKO TAILERRAK
Norentzat: Narriadura dutenentzat geldiarazten saiatzeko eta osasuntsu dudenentzat.
Lantzen dena: Memoria, orientazioa, arreta, kalkulua Talde ekintzak, barreterapia, terapia aberarekin.
Santiago, 51 - IRUN - 635 70 30 55 - 943 05 12 27

TRANS - CRIS Garraioak

Nazionala eta nazioartekoa 606 38 71 38
transcris@live.com

% 50eko BEHERAPENA 200 kilo arteko zerbitzu batean.
Epea: 2015eko martxoa. Txartel hau aurkeztu behar da

BIDASOA
HALTZARIAK - DEKORAZIOA
Nafarroa hiribidea, 2 - 943 63 29 32

%10eko BEHERAPENA
2015eko urtarrilaren 6ra arte. Iragarki hau aurkeztu behar da

Orain MAIL BOXES ETC. IRUNen

**100 bisita-txartel*
1 € bakarrik**

*Txartel hori erabili behar duzu 2015eko urtarrilaren 31a baino lehen. Txartela erabili behar duzu 2015eko urtarrilaren 31a baino lehen. Txartela erabili behar duzu 2015eko urtarrilaren 31a baino lehen. Txartela erabili behar duzu 2015eko urtarrilaren 31a baino lehen.

Flamandigitat argazkiak

Koilar, 56
943 66 02 11

Txartel hau aurkeztuz
Ordu beteko ARGAZKI SAIOA. Pertsona 1 edo 2.
DVDa + 10 argazki paperean. 180€ **40 €**

Baserri Jatetxea Taberna

%25eko BEHERAPENA
bazkarietan asteleheneetik ostiralera

Berrataran, 5. IRUN. 943 03 05 66

Gabonetan,
erosi Irungo
dendetan,
eta lor
itzazu
deskontuak
eta
opariak!

OHARRAK:
Merkatari ba-
koitza bere
eskaintzaren
arduraduna da.
Txartela
aurkeztea
ezinbestekoa da.

“Gipuzkoako Txapelketan zortzi bikoteak irundarrak izan dira”

Hogeigarren aldiz jokatzeko ari dira asteotan goma paletako Txingudi Txapelketa, Ramuntxo Berri Trinketea. Estatuko lehiaketa “garrantzitsuenetarikoa” da, antolatzaileen eta parte-hartzaileen ustez. Hamahiru bikote hasi ziren txapelketaren lehen mailan, eta hamar, bigarrenen. Bikote horietako partaide gehienak irundarrak dira, Kurpil edo Ramuntxo elkarteetakoak. Ander Monserrat hogeita bat urte dituen Ramuntxoko jokalaria da.

Finalerdietarako entrenatzen ari da Monserrat. Gaur prestaketa-partidatxoak jokatu du, beste hiru taldekideekin batera. “Normalean bakarka entrenatzen dugu, kolpe berdinak errepikatuz. Bi bikote elkartu eta elkarren aurka aritzea asko eskertzen dugu”, baieztatu du.

Pozik dago orain arte Txingudi Txapelketan egindako lanarekin. Lehiaketa berezia da harentzat: “Batetik etxekoa delako, Ramuntxok antolatzen duelako. Baina, gainera, maila handiko txapelketa da”. Euskal Herriko bikote onenak biltzen dira Txingudin, Ramuntxo Berri Trinketea.

Ipar Euskal Herriko jokalaria da eskarmentu handiena dutenak. Tradizio handiagoa du trinketeak Bidasoa ibaiaren beste aldean. “Haiekin entrenatuz ikastera joan nahi izan dugu askotan, baina diru-laguntzarik gabe zaila da asmoak aurrera eramatea”, azaldu du Ander Monserratek.

Hegoaldeko ertzean, irla modukoa da Irun. Gipuzkoan ez bezala, trinketea jokatzeko “afizio handia” dagoela gogoratu du Monserratek: “Aurtengo Gipuzkoako Txapelketan, zortzi bikoteak irundarrak izan dira”.

Lau trinkete daude gaur egun

Irunen. Zazpi urte bete dituen Ramuntxo Berri Estatuko azpiegitura onenen artean dago: “Irunean, Mendillorri dagoen trinketea da onena, eta hau bigarrena izango litzateke. Irunen trinketea ari garenontzat salto handia ekarri du, mailari dagokionean”. Bi elkarte dira trinketea lantzen dutenak: Kurpil Kirolak eta Ramuntxo Trinkete Elkartea. “Helduen artean, batez ere, lehia handia dago. Baina oso harreman ona daukagu, giro polita sortzen da bi elkarten artean”, aipatu du Ander Monserratek. Gaintzurizketaz harago, jende askok ez du trinketea ezagutu ere egiten: “Frontoian aritzen zen Hernaniko bikote batek trinketea eman zuen behin izena, nahi gabe. Ikaragarri gustatu zitzaizkien”.

Irla modukoa da Irun. Gipuzkoan ez bezala, trinketea jokatzeko afizio handia dago

Irundik mundura

Aitaren eta aitonen urratsak jarraitu zituen Ander Monserratek trinketearen munduan murgiltzeko. Futbolekin jokatu zuen txikitik, baina aitak trinkete partidak ikustera eramaten zuen larunbatetan. “Behin probatzeko sartu nintzen, eta asko gustatu zitzaidan. Frontoikoa baino joko bizkorragoa da, aukera gehiago eskaintzen ditu”.

Gaur egun Bidasoan eskubaloian ari den Iñaki Susperregirekin eman zituen lehen pausoak: “Berekin hasi nintzen, eta eskerak, nire adineko beste jokalaririk ez zegoelako. Txapelketa asko jokatu genituen bikote moduan. Ia dena irabazten genuen”. Susperregik ez bezala, Monserratek aurrera egin zuen trinketea. Gipuzkoan, Euskadin

eta Espainian onenen artean aritu ondoren, Ozeano Atlantikoa gurutzatu zuen.

Uruguain, Argentinan eta Mexikon egon da Ander Monserrat, trinkete jokari onenekin lehiatzen. Amerikan jokamolde ezberdina dutela nabarmendu du irundarrak: “Material biziagoa erabiltzen dute, eta trinketeak ere azkarragoak dira. Gainera fisikoki gu baino sendoagoak dira”. Hala ere, munduko laugarren izatea lortu zuen joan den urtean 22 urtez azpiko mailan, Ramuntxoko Gorka Pablos bikotearekin. “Pena izan zen, domina eskura geneukalako; baina txapelketa ederra egin genuen”. 2015ean ere Pablos izango du ondoan. Bikote gaztea osatuko dute Ramuntxoko irundarrek: “Argentinan jokatu den Munduko Koparako sailkatzea izango da gure helburua”. Irungo trinketea mundu mailako podium batera eramaten ahaleginduko dira.

Ander Monserrat, goma paletako jokalaria



Ander Monserrat, Espainiako selekzioarekin jolazten



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Toki Alai. HLHI 3. zikloa

LAIKA

Laika Husky Siberiar bat zen, 1954an Sovietar Batasunean jaiotako txakur emea. Oso famatua da atmosfera zeharkatu zuen lehenengo izakia izan zelako. Sputnik 2 espazio ontzian egin zuen bere bidaia.

1957ko azaroaren 3an aire-ratu zen. Zientzilariek hegaldi espazialen inguruan jakintza handirik ez zuten, ez zekiten izaki batek jasango ote lituzkeen atmosfera gaindiko baldin-



tzak. Horrela, lehenengo animaliekin frogak egiteko erabakia hartu zen eta Laika txakurra izan zen lehenengoa. Hala ere, hegaldi azpiorbitalak segurtasunez burutzeko teknologia nekez garatua zegoela eta, txakurrak iraungo zuen itxaropenik ez zegoen.

Laika espazioan 6 ordu igaro eta gero beroaren eta estresaren ondorioz hil egin zen.

Lurrean protestarik ez izateko, misio honen arduradunek gezurrak kontatu zituzten: kapsula ireki eta Laika Lurrera itzuliko zela zioten. Baina

egiazko plana hau zen; 10 egun igaro eta gero, janari pozindua eman eta era horretan txakurra hiltzea.

Misio honekin, izaki bizidunak grabitate gabeko inguru batean iraun dezakeela frogatu zen eta bidea ireki zion lehenengo gizakiari. 1961ean, Juri Gagarin espaziora heldu zen lehenengo pertsona bilakatu zen eta astronauta hitz berriari esanahia eta zentzua eman zizkion.

Asier Carrasco García
Toki-Alai HLHI
3. zikloa

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:


*Kudeaketa administratiboa, laborala, kontularitza eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...*

*Errenta aitortpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...*

Txingudi Ikastola BHI

MATIA ZOROA

Literatur Lehiaketak. *Algaraka* izeneko atal honetako lanek baldintza hauek bete behar dituzte: ikasleek ipuin bat idatzi behar dute, ematen zaien argazki bat kontuan hartuta.



Eleini Zuñiga
1. maila. Finalista
2013-2014

Bazen behin, Matia izeneko gizon bat, 49 urte zituen. Matia baserri batean bizi zen, eta oilategi bat zuen. Egunero joaten zen tren geltokira, musika jotzera eta diru pixka bat lortzera; baina beti izaten zen norbait berak baino hobeto jotzen zuena. Asteazkenero psikologo batengana ere joaten zen, astero anekdota bat kontatzen zion bere psikologoari; azken anekdotak arrautzei buruzkoak izan dira.

DUELA 2 EGUNEKOA:

Aurreko egunean, arrautza egosi bat jatera nindoala, konturatu nintzen ez zela arrautza normal bat. Jan aurretik begirada bat eman nion, zerbaiten antza aurkitu nion, zerbait lehenagotik ikusi izana nuena; bat-batean galaxia suntsitzeko gogoia eman zidan.

JOAN DEN ASTEKOA:

Aspertua nengoela arrautzak, zutik mahai baten gainean, jartzen hasi nintzen; ideia bat izan nuen: billarrean jokatzeko hastea arrautza horiekin; baina, nahi gabe, bizilagunaren kotxe berrira erori zitzaidan arrautza bat.

Dena den, gauza arraroagoak egin zituen; adibidez, egun euritsu batean, kafetegiri batera joan, euritako bat lapurtu eta ondoren jendeari saldu euro baten truke. Eta hori guztia gutxi balitz, bizilagunaren txakurra aztoratu eta korrika batean ateratzea ere.

Azkenik, Matia psikologoarenetik ateratzean, segituan, txinera ikastera joan zen akademia batera, oso garrantzitsua zelako berarentzat. Klasearen ondoren tabernara joan

zen lagun bat bisitatzera.

- Matiaaa!

Matia taberna osoan zehar begiratzeko hasi zen zein ari zitzaien deika jakiteko. Bera zen, bere laguna, gizon altua 1,80-1,90 neurtuko zuen erraz, fin-fina eta mozorro beltz batez jantzia. Manu zuen izena eta Matia beragana hurbiltzeko keinua egin zion. Bere freskagarria hartu ondoren, Manurengana abiatu zen.

- Luzaro egon al zara nire zain?- galdetu zion Matiak.

- Ez, gizon, ez!- erantzun zion Manuk-. Zer moduz psikologoarenean?.

- Ederki, arrautzei buruz hizketan aritu gara.

- Zeeer, arrautzei buruz?- galdetu zion Manuk ezin sinetsiz-. Baina, zer arrautza?

- Zer arrautza?- erantzun zion ukondoarekin haren besoak jotzen zuen bitartean-. Nire etxeko oiloen arrautzak.

- Oiloek arrautzak dituzte?- pentsakor gelditu zen.

Bat-batean, Matia mahaitik altxa eta tabernatik atera zen Manurekin. Matiaren etxera joan ziren arrautzen bila. Bakoitzak 20 bat arrautza eta zortzi bat garagardo hartuta bizilagunaren etxe ondora joan ziren. Batek proposamen bat egin zuen, arrautzak zenbat eta gorago bota, garagardo botila gehiago edango zituztela, eta hantxe hasiko ziren. Biharamunean, bizilagunak, Manu eta Matia horrela ikustean, ertzainei deitu zien. Orduantxe, ertzainek, Manu eta Matia atxilotu eta 7 urteko zigorra jaso zuten, lan sozialak egiten.

ELLO, MODA-MODAKO SARE SOZIALA AUKERAN



Ziur azken asteotan aditu duzula behin baino gehiagotan: Ello, antiFacebook omen den sare soziala... anti, honek publizitaterako bazkatat hartuko ez zaituelakoan.

Ello ezin soilagoa da: interfaze argia, garbia, botoi gutxikoa eta erabileraren intuitibo samarrekoa.

Edukiari erreparatzen dio bereziki, eta testuak eta argazkiak luzera edo tamaina aldetiko mugarik gabe argitaratu

ditzakezu. Azken finean, omnibox (denetarako kutxa) batetik kudeatzen duzu: testuak argitaratu, irudiak arrastatu, beste erabiltzaileak aipatu, mezu pribatuak bidali, eta abar.

Kontuan hartu oraingoz beta egoeran dagoen sare sozial bat dela; alegia, bertsio hau ez dela egonkorra, eta alderrai samar dabilzala oraindik erabileraren alderdi bat edo beste. Ezarpen batzuk anarantean ez daude eskura, hala nola, mezu pribatuen bidalketa eta testuinguruaren araberrako bilaketak; baina horrexegatik uste dut primerako abagunea dela harekin esperimintatzen hasteko. Hona hemen abantailak batzuk:

- Ez dugu benetako datu pertsonalik eman beharrik alta emateko (e-maila izan ezik, jakina).

- Publizitaterik batere ez dago.

- Kontaktuek ez dute elkarrekiko jarraipen beharrik (twitter-en antzera, norbait jarraitzeak ez du esan nahi hark jarraitu behar zaituenik).

Elloekin, kontaktuak lagun (friends) edo zarata (noise) gisa sailka ditzakegu. Kasu bietan, besteen argitalpenetara harpidetuko gara, baina informazio mota biok ikusteko era desberdina da: lagunena osorik eta xehero aurkeztuko zaigu; zaratarena, kolapsaturik, eta arinago iragazteko abantailaz.

Egunero sortzen dira sare berriak, eta ezin denetan egon. Zer da Ello: burbuila bat ala epe luzerako apustua? Goizegi da jakiteko, baina oraingoz jende askoren arreta bereganatu du, hain zuzen Facebook erregina moteltzen hasi denean eta Twitter-ek diruz babestutako txioetara maiztxo jotzen duenean.

Elloren partaide izateko, gonbidapen pertsonal bat eskatu behar da, edo kontaktu batengandik jaso. Interesatzen bazaizu, geuri eska diezagukezu, 3ymedia.net blogean

Gero, honako profil honetan jarrai gaitzakezu Ellon: [@3ymedia](#) delakoan, edo pertsonalago batean, [@pabloratinos](#)

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Mikel Estomba, kooperantea

“Ni izan naiz gehien ikasi duena”



Goiko argazkian, Mikel Estomba kontzertu batean zuzendaritza lanetan; behekoan, klase bat ematen.

Urteak daramatza Irungo *Taupadak* Gobernu Kanpoko Erakundeak Boliviako Amazonian lanean. Indigenen herrietan azpiegiturak sortzeko helburuaren baitan, San Ignacio de Moxos-eko Musika Eskola da proiektu nagusietako bat. Hiru hilabete eman ditu bertan Mikel Estomba kooperante irundarrak, irakasle.

Bi abesbatza zuzentzeaz gain, herrialdeko errealitatea ezagutzeko aukera izan du.

- Nola erabaki zenuen Boliviara joatea?

Eusko Jaurlaritzaren *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren bitartez sortu zitzaidan aukera. Ehun diru-laguntza ematen dituzte, Latinoamerikara edo Afrikara joan eta Gobernu Kanpoko Erakunde batekin hiru hilabetez lan egiteko. Hautaketa prozesu bat egoten da, eta profilaren arabera banatzen dituzte hautagaitzak. Nire formazio musikala zela eta, *Taupadak*-ekin San Ignacio de Moxos herrira joatea egokitu zitzaidan. Niretzat pozgarria izan zen Irungo GKE batekin lan egin ahal izatea.

- *Taupadak* alde zuzentzeaz gain, herrialdeko errealitatea ezagutzeko aukera izan du.

Bai erakundea, baita jendea ere, Irungo Bandan dabilena batez ere. Gainera, *Taupadak*-ek Boliviako indigenak ekarri izan ditu Irunera ikastera. Batzuk irakasle dabilta gaur egun San Ignacio de Moxos-en. Irunen ezagututako jendea han topatzea atsegina izan zen.

- Zein da *Taupadak*-ek San Ignacio de Moxos-en daukan proiektua?

Musika Eskola Bilboko moja batek jarri zuen martxan, duela hamabost urte inguru. Tradizio eta ondare kultural eta folkloriko handia daukatela konturatu zen eta, galdu aurretik, Musika Eskola eratzea erabaki zuen. Geroago *Taupadak* sartu zen proiektu horretan. Pixkanaka proiektua sendotu zuen, eraikuntza parte hartuz, edo instrumentuak eta irakasleak lortuz. Kontuan hartu behar Amazonia lurralde handia eta basatia dela. Musika Eskola oso gauza berezia da han.

- Musikari bezala baduzu esperientzia, baina zer moduz irakasle lanean?

Esango nuke ni izan naizela gehien ikasi duena. Bi abesbatza eduki ditut, txikiena eta gazteena. Lan polita egin dugu kontzertu bat antolatu arte. Alde horretatik pozik nago. Gero, metalezko haize-instrumentuak jotzeko hastapen ikastaro bat ere

eman dugu. Han, orain arte landu duten bakarrak haria, zurezko haizea eta perkusio pixka bat izan dira.

- Nolako izan da zure eguneroko bizitza Bolivian?

Asteleheneretik ostiralera klaseak genituen goizez eta arratsaldean, irakasleei ere klaseak ematen genizkielako. Asteburuetan inguruko komunitate edo herritarra txikiak bisitatzeko aukera izan genuen, benetan nola bizi diren jakiteko. Gu eskolan bertan bizi ginen, eta nahiko pribilegiatuak ginen alde horretatik. Zorua geneukan, baita ura eta argia ere.

- Nolako herrialdea ezagutu duzu eskolatik kanpo?

Joan aurretik azalpen batzuk eman zizkiguten arren, harrigarria izan zen guretzat. Oso azpiegitura eta baliabide gutxiarekin egiten dute aurrera, baina zorientsu dira. San Ignacio de Moxos-en kontraste han-

diak ikus daitezke. Badaude dirudun batzuk, etxe politak dituztenak, baina parean zurezko etxolak daude. Errepideak lurrezkoak dira, eta ehun kilometro egiteko hiru ordu behar izaten dituzte gutxienez. Bizitzeko beste erritmo bat daukate. Eguraldiari dagokionez, bero ikaragarria egiten du. Berrogei gradu eta %90eko hezetasuna ere jasan behar izan ditugu.

- Hiru hilabete denbora nahikoa izan da zuretzat?

Motza izan da, ziztu bizian pasa zait. Hemen ere konpromisoak dauzkatz, noski. Baina nire ideia da *Taupadak* elkartearekin lanean gehiago inplikatzeko, Boliviara bueltatzeko asmoz. Bertako proiektuaren parte sentitzen dut orain nire burua, eta hasitako lanarekin jarraitu nahiko nuke.

Gainera, *Taupadak*-ek dituen beste proiektuetan ere laguntzea gustatuko litzaidake.



**IKASI EUSKARA
BESTELA EZ GARA!**

Irungo GKE

HERRI JAKINTZA

**Eskaintza bereziak
DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK**

Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.

Zorionak eta Urte Berri on!

Naiztoa Hiribidea, 13 | IRUN (20002) | (Moztoa nr.) 943-635-266 | herrijakintza@gmail.com

HADE





Lehiaketak

- IRUNGO GAZTE ARTEAN-KUNSTHALEN II DISEINU TXA-PELKETA



Zer? Botatako objektuak eguneroko erabileretarako berreskuratzea

Parte-hartzaileak: 14 eta 22 urte bitarteko gazteek parte har dezakete (bakarka edo taldeka).

Epea? Abenduaren 10eko 23:59ean amaituko da epe-muga.

Izena emateko?
www.kunsthal.es edo
www.irun.org.

- EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN 2015 PROGRAMAREN KARTEL EHIAKETA



Sariak? Lehiaketako irabazleak aparteko hegazkin bidaia irabaziko du.

Epea? Abenduak 15.

Informazio gehiago:
gazteukera@gmail.com

- EUROSCOLA 2015

Zer? Garapenaren Europar Urtea.

Baldintzak? 10na ikasleko taldeak, irakasle banarekin.

Euroscola



DBH, Batxilergoa edo Erdi Mailako LH ikasten ari diren 15 eta 18 urte bitarteko gazteak. Lehiaketa otsailaren 19an hasiko da.

Saria? Bidaia Estrasburgora, Euroscola Jardunaldian parte hartzea.



- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2 behean

- Telefonoz: 943 505 444 / 943 505 440

- Posta elektronikoz:
igazte@irun.org

- Webean:

www.irun.org/igazte

- WhatsApp bidez:
607 771 173

Komikiaren eta Arte Kideen Hamabostaldia

Erakusketa

Erakusketa azaroaren 20tik urtarrilaren 10era *Ikust-Alaia* Udal liburutegian izango da.

Angeluko tailer-erakusketa

Pasa den azaroaren 28an Irungo Gaztelekuko gazteek Angeluko taldearekin ikustaldia eta topaketa egin zuten. Hala-ber, erakusketa ikusteko bisita gidatuan parte hartu zuten; ondoren, elkarrekin merendatu zuten eta, azkenik, animaziozko proiektioak ikusi zituzten Martindozenea Gaztelekuan.

Rol, estrategia jokoak

- Mahai jokoak: abenduaren 4an, 17:00etan.

- Friday Night Magic: abenduaren 5ean, 16:45ean.

- Magic Torneoa Modern formatuarekin, azaroaren 29an egin zen.

- Heroclix hastapena abenduaren 6an, 17:00etan.

Tailerrak

- Eskuka Sorkuntzazko Aisialdiaren lokaletan (Jose Egino, 9) modelatu tailer bat eskainiko da (hasierako eta erdiko maila)



Ander Aguirrerekin, abenduaren 2an, 18:00etan.

- Martindozenea Gaztelekuan (Elizatxo 18), abenduaren 3an eta 5ean, 18:00-19:00, *eba gomekin* super heroi intsignia eta pin tailer bat egingo da, Eskukako José Manuel Sánchez irakasle lanetan arituko dela.

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduak 2

Bi pelikula:

"DIXIE ETA MATXI-NADA ZONBIA"

- Ordua: 17:30. Iraupena: 90'

"LOREAK"

- Ordua: 20:00. Iraupena: 90'.

- Tokia: Amaia Kultur Zentroan

- Gonbidapenak, Gazte

Informazio Bulegoan.

Abenduak 3

Mintzodromoa: Lau lagun, taldetxoetan, mahai baten inguruan elkartu eta lagun giroan berrikerian, solasean aritzea eguneroko gaiei buruz, kafetxo bat hartu bitartean.

- Ordua: 10:00etatik



12:00etara.

- **Lekua:** Txanaleta plazan (Irun)



zure enpresari internetetik zabaltzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



Abenduaren 4an

Bertso saioa

Non? Kabigorri
Ordua? 19:30ean

Abel Zabala, Arkaitz Oartzabal "Xamoa", Aitor Albistur eta Iraitz Mateo. Gai jartzaila: Exteban Martiarena.



- Prezioa? Doako sarrera

Abenduak 10

Hitzaldia: "Aldaketa pertsonala eta transformazio soziala"

- Ordua? 17:00etan.

- Hizlaria: Joxerra Trebiño.

- Non? Bertsolari Uztapide, 6.

- Antolatzailea? Argoiak Kultur Elkartea.

- Prezioa? Doako sarrera.

- Hizkuntza: Gaztelania.

Abenduaren 6tik 8ra

Euskal Kostaldeko Gabonektako Azoka 2014

- Zer? Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka Ficoban egingo da abenduaren 6tik 8ra bitarteko zubian. Sektore anitzeko azoka da eta marka erakusketarik osatuko dituzte erakustazokaren pabilioi guztiak.

- Ordua? Larunbatean eta igandean: 11:00-21:00 / Astehenean: 11:00-20:00.

- Prezioa? Sarrera orokorra 3 euro. 12 urte arteko umeek dohainik.



Abenduak 12

Liburu irakurketa

- Zer? "No hay tres sin dos" liburuaren irakurketa eta aurkezpena.

- Non? Kabigorri.

- Ordua? 19:30ean.

- Prezioa? Doako sarrera.


Abenduak 9

EHUri buruzko informazio jardunaldia

- Zer? Orientazioan edo irakaskuntzan diharduten eta EHUri buruzko informazio orokorra jaso nahi duten guztien-tzako jarduera izango da.

- Non? Amaia KZn

- Ordua? 18:30ean



Abenduaren 7ra arte

Margolan erakusketa

- Antolatzailea? Belaskoenea Auzo Elkartea.

- Non? Kolon ibilbideko Laboral Kutxan.

- Ordua? Astehenetik larunbatera: 18:30-21:00. Igande eta jaiegunetan: 22:30-13:30.

- Prezioa? Doako sarrera

Komiki erakusketa: "Euskadi fantastikoa"

Noiz arte? 2015eko urtarrilaren 10era arte.
Ordutegia: Astehenetik ostiralerara 08:30 - 13:00 eta 16:00 - 20:00 / Larunbatetan: 09:00 - 13:00.
Non? Ikust-Alaia Udal Liburutegia. Kale Nagusia, 24
Prezioa? Doako sarrera



"ANA IZURA... GASPAREN ESKUTIK"

Non? Menchu Gal Erakusketa aretoan. Urdanibia, z/g - Sarrera, Eguzkitza kaletik.

Noiz arte? 2015eko otsailaren 15era arte

Ordutegia? Ostiraletan eta larunbatetan: 18:00-21:00. Igande eta jaiegunetan: 11:30-13:30.

Prezioa? Doako sarrera.



Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN **+34 943 628 333**
 info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PISU ETA LOKALAK SALGAI

<p>Pisua salgai Irun San Juan Azalera 60 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaketa, trasterokua, berokuntza elektrikoa, hegokiduruntz, eguzkitua. Ref: 04297 119.000 €</p>	<p>Pisua salgai Hendaia goiko aldean Azalera 65 m², 2 gela bikotz, berugela, komunak, egongela, sukaketa, terraza, trasterokua, berogailu elektrikoa, hegokiduruntz, eguzkitua eta bista polita. Apartaketa berritu. Ref: 03511 190.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Meaka Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaketa, terraza, hegokiduruntz, eguzkitua eta bista polita. Ref: 04262 120.000 €</p>
<p>Pisua salgai Mendelu Azalera 75 m², 3 gela, bainugela, komunak, egongela, sukaketa, terraza, trasterokua, berokuntza, eguzkitua, Garajea berritu. Ref: 04302 240.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Palmera Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaketa, berokuntza, trasterokua, eguzkitua, berokuntza, eguzkitua. Ref: 04299 248.000 €</p>	<p>Pisua salgai Bera Erdialdea Azalera 70 m², 2 gela, bainugela, komunak, egongela, sukaketa, berokuntza, terraza, eguzkitua, berokuntza. Ref: 04272 170.000 €</p>
<p>Lokal/garajea salgai Irun Dunboa Azalera 140 m², komunak, bulegak eta baimendutako postabidea. Bi lokal dira berritu. Berritu eta etxi ahal da. Ref: 04048 250.000 €</p>	<p>Lokala salgai Irun San Juan Azalera 40 m², komunak eta eskaparabete polita. PRIMERAKO AUKERA !! Ref: 04305 210.000 €</p>	<p>Lokala salgai Irun Dunboa Azalera 50 m², komunak, eskaparabete, bulegak, berokuntza eta aire gutxiak. Ref: 04279 65.000 €</p>

ESKARI HANDIAGATIK, ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU !!

Irungo Merkatuak kalitaterik hoberena eskaintzen du **Gabonetako produktuetan**



ANGEL ARAMENDI NIÑO Harategia
 M. OLASAGASTI Harategia-Urdaitegia
 M^a CARMEN ALBERDI Harategia
 SHANTI Haragikiak
 GENOVEVA Urdaitegia
 MARTIN TOLEDO Harategia-Urdaitegia
 LARREZABAL Harategia-Urdaitegia
 PURI Arrandegia
 LA MAREA Arrainak eta itsaskiak
 HARKAITZ Arrandegia
 JUNCAL Barazkiak
 PILARTXO Frutak eta barazkiak
 OKELA Urdaitegia
 ROSARITO Urdaitegia
 VICENTE BENAGES Urdaitegia
 J. A. LARREA Harategia-Urdaitegia
 SENOSIAIN Harategia-Urdaitegia
 JOSE MAIZ Fruta-denda
 IÑAKI PEÑA Gaztandegia-Urdaitegia
 ALBERDI ANAIK Oilasko- eta
 arrautza-denda
 JOSE DOMINGUEZ Urdaitegia
 BAKAILUAK "La Bixera"
 PIKABEA Harategia
 OKINDEGIA
 ZUBIKOA Urdaitegia
 AIZPURUA Fruta-denda
 JUAN MARI Arkumeak
 BASAUNTZA Belar-denda

Gabonak ate joka ditugu. Iritsi da gastronomia protagonista duten jaietan pentsatzeko tenorea. Helburua, etxekoak eta gonbidatuak gogobeteko dituen menua prestatzea, eta hori lortzeko goi mailako kalitatezkoa produktuak giltzarri dira.

Mendibil Merkatal Guneako produktu freskoen merkatuko profesionalak, esperientzia handikoak izaki, Gabonetarako eskaintza zabala prestatu dute. Guztira 28 saltoki biltzen ditu tradizioa eta berrikuntza uztartu dituen merkatu modernoak. Bertan produktu mota guztiak eros daitezke, asko eta asko gure ingurutako enpresetan ekoiztutakoak: haragia, urdaikiak, gaztak, bakailoak, arrainak,

frutak eta barazkiak, ogia, sukaldatutako janaria, bio elikagaiak eta kontserbak. Azpimarratzekoa da kalitatea dela produktu hauen guztien ezaugarri nagusia. Prezioei dagokienez, aukera zabala eskaintzea da merkatarien helburua. Hala, merke erosi nahi izanez gero, bezeroak ez du hipermerkatuetako salneurrikerikiko alderik nabaritu.

Merkatuan urteetako eskarmentua duten profesionalak

lan egiten dute; hortaz, ongi dakite arreta pertsonalizatua zein garrantzizkoa den. Produktuaren inguruko aholkuak, nola prestatu... eta beste hainbat konturen inguruko laguntza ematen dute.

Produktu freskoen merkatua Irungo zentroan dago. Erosketa errazteko, aparkalekua dauka, eta bertaratu gabe ere eros daiteke jada: web orrian eskaera egin eta etxera eramatean datza zerbitzua.



Mendibil Merkataritza Gunean
 943 63 83 94